

Galdera

Zalantza bat daukat: **vanidad** eta **arrogancia** hitzak itzuli nahi nituzke, baina hiztegiak sinonimotzat hartzen ditu. Honako testu-zati hau jartzen dut sinonimoak ez direla azaltzeko, kasu honetan behintzat:

«Para poner esto de manifiesto, consideremos un contraste entre la arrogancia y la vanidad. La arrogancia no tiene por qué saber qué aspecto tiene su persona ante los demás y puede no importarle lo más mínimo. Por lo tanto, la arrogancia suele ir unida a la indiferencia, la complacencia o el desprecio hacia los demás. El arrogante puede enfadarse cuando los demás son menos deferentes o no reconocen su presunta superioridad o derecho como ser humano (Tiberio y Walker 1998: 382). Sin embargo, los arrogantes no necesitan (y normalmente no lo hacen) insistir o saborear su autoimagen como admirada o admirable para los demás. La arrogancia presume de lo que la vanidad se deleita. La vanidad, por el contrario, siempre se dirige a un público implícito dado que lo que importa es la apreciación del yo como glorificado. La vanidad, por tanto, está necesariamente indexada a un público implícito de una manera que la arrogancia no lo está. La vanidad busca la aprobación, la alabanza, la admiración o la estima (aunque en su versión más remota sólo sea la apreciación de uno mismo). Por ello, los verdaderos vanidosos suelen dedicar mucho tiempo y esfuerzo a presentarse ante los demás de la mejor manera posible y a comprobar hasta qué punto los demás les responden o no de esa manera. La vanidad busca y saborea el aplauso y la admiración, mientras que la arrogancia presume de tener derecho a ello o de estar por encima de esas cuestiones».

Erantzuna

Gure iritzian, '**hutsalkeria**' eta '**harrokeria**' erabil litezke zure testuan, baina badituzu beste hainbat aukera.

1/ Hona testuaren gure bertsioa:

«Hori agerian jartzeko, aztertu dezagun hutsalkeriaren eta harrokeriaren arteko kontrastea. Harrokeriak ez du zertan jakin zer itxura duen besteen aurrean, eta agian ez dio batere axola. Beraz, harrokeria lotuta egon ohi da besteekiko axolagabekeriarekin, norbere burua ederrestearekin edo besteenganako mespretxuarekin. Harroa haserretu egin daiteke besteek horrenbesteko adeitasuna erakusten ez diotenean edota gizaki gisa duen ustezko nagusitasuna edo eskubidea aitortzen ez diotenean (Tiberio eta Walker 1998:382). Hala ere, harroek ez dute premiarik sentitzen beren irudia besteentzat miretsia eta miresgarria dela ahogozatzeko, eta normalean ez dira tematzen horretan. Harrokeriak bere jotzen ditu hutsalkeriak atsegin-iturri dituen gauzak. Hutsalkeria, aitzitik, beti zuzentzen zaio publiko inplizitu bati, loriatua izatea baitio axola benetan. Hutsalkeria, beraz, publiko inplizitu horri begira dago nahitaez, harrokeria ez bezala. Hutsalkeriak onespina, laudorioa, mirespena edo estimua bilatzen ditu, nahiz eta bertsiorik muturrekoenean norberaren estimazioa besterik ez izan. Horregatik, benetako gizaki hutsalek denbora eta ahalegin franko ematen dituzte besteen aurrean ahalik eta ongien agertzen eta besteek halatsu erantzuten dieten ala ez egiaztatzen. Hutsalkeriak txaloak eta miresmena bilatu eta ahogozatu egiten ditu, eta harrokeriak, berriz, uste du horretarako eskubidea duela edota gai horien gainetik dagoela».

2/ Gure lexikoa ez da inguruko zenbait hizkuntzatan bezain zurruna eta ez dago hain irmoki finkaturik. Horregatik, hitzen hedadura semantikoa nabarmen nasaiagoa izan ohi da, eta batzuetan interferentziak sortzen dira. Euskaltzaindiaren hiztegiak *banitate* hitza jasotzen du, baina zaharkituztat jotzen du; bestela, irtenbide dotorea zatekeen *Ecclesiastes* (1, 2) liburuko esaera ezaguna euskaraz emateko: *banitateen banitatea eta oro banitate*.

Baina Duvoisinin bertsioa nagusitu zaio (eta badaude beste bertsio batzuk):

- eu *hutsalkerien hutsalkeria eta oro hutsalkeria.*
- en *vanity of vanities; all is vanity.*
- es *vanidad de vanidades, todo es vanidad.*
- fr *vanité des vanités, tout est vanité.*

3/ Hona aukera batzuk:

[hutsalkeria - Elhuyar](#)

munduko hutsalkeriak: las vanidades de este mundo

[hutsalkeria - Orotariko Euskal Hiztegia](#)

Oi hutsalkerien hutsalkeria, eta oro hutsalkeria. (Duvoisin, *Jesu-Kristoren Imitazionea* 1,3)

[hutsalkeria - Labayru Hiztegia](#)

1 iz. vanidad, ligereza. *Ez ibili hutsalkeria eta itxurakerietan.* Sin. handigura, handiputz

[hutsalkeria - Adorez](#)

hutsalkeria: iz. vanidad, ligereza, nimiedad, nadería, futiliza; hutsalkeriaren hutsalkeria eta oro hutsalkeria!:
¡vanidad de vanidades y todo vanidad!

[handigura - Elhuyar](#)

handigurak pobrezia bultzatzen du: la vanidad impulsa la pobreza

[handiuste - Elhuyar](#)

iz. soberbia, vanidad, orgullo; inmodestia

[huskeria - Orotariko Euskal Hiztegia](#)

Eta jauntasun hortan ez dezala nehork haizezko betedura baten huskeria ikus (E. Larre, *Ene artzain-etxolak* 217)

4/ Ikusi beste kontsulta honetan eremu semantiko bereko lexikoa: ["va de sobrado"](#)